



Lagun agurgarriak,

Aurreko esperientzia onaren ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateak V Euskarazko Eztabaida Txapelketa antolatuko du Eusko Legebiltzarraren laguntzarekin. Horregatik, Euskara plaza sozial eta politikoa bultzatu nahian, zure unibertsitateari gonbidapena helaraztea pentsatu dugu UPV/EHUko Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren errektoreordetzatik.

Aurtengo helburua, aurreko edizioetan bezala, euskara hizkuntza erabiltzen duten unibertsitate gehien arteko harremana sustatzea da; orain arte izandako parte-hartzaileen kopurua handitzea litzateke gure nahia.

Mezu honi erantsita doa txapelketaren araudia. Bertan azalduta dago parte hartzeko behar dena; baita ere, behin txapelketa hasita kontuan hartuko direnak. Hala ere, informazio osagarria zein edozein zalantzaren aurrean, Euskal Herriko Unibertsitateetik prest gaituzue laguntzeko.

Txapelketa egin aurretik, trebakuntzarako jarduerak antolatzen ditugu eta erabateko prestakuntza ematen diegu parte hartu nahi duten talde guztiei.

Txapelketa Gasteizko Eusko Legebiltzarrean izango da. Txapelketaren formatua erabaki gabe dago, parte hartzaileen arabera egituratuko dugu. Eztabaidatzeko taldeen arabera.

Txapelketaren gardentasuna bermatzeko, txapelketako epaileak parte hartzen duten unibertsitateetako ordezkariak izango dira. Beraz, parte hartzea erabakitzen baduzue, zuen unibertsitateetako pertsona bat izendatzea eskertuko genizuke, eztabaidetan epaile lanetan aritu dadin.

Ekimen honek, ikasleen lanari protagonismoa eta merezi duen zabalkundea ematen dio. Ezinbestekoa de publikoaren aurrean hitz egiteko gaitasuna eta talde lanean aritzeko trebetasunak erakustea.

Oraingo honetan zuekin kontaktzea da gure desira.

Edozein zalantza, zein parte hartzeko kontaktua hauxe izango da:

- Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzako teknikaria: Juan Mari Apaolaza Estensoro
- Bulegoko telefonoa: 943018376
- juanmari.apaolaza@ehu.es

Besterik gabe, aldeztu aurretik eskaintako arretagatik eskerrak emanez, adeitasunez.

2017ko maiatzaren 19a

Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren errektoreordea

Jon Zarate Sesma